

Paul Urkijoren pelikula arrakastatsuen ostean, Juan Luis Landak eta Joxean Muñozek orain dela 30 urte sortutako abenturak bildu ditu Erein argitaletxeak, liburuki bakar eta landu batean

↳ Harri X. Fernándezen erreportajea 📷 Ruben Plazaren argazkia

‘Irati’, komikitik zinemara... eta komikira buelta

Erein argitaletxeak, lehen aldiz, Juan Luis Landak eta Joxean Muñozek sortutako Irati komikiaren atal guztiak liburuki bakarrean jaso ditu, bai euskaraz, baita gaztelaniaz ere, sorkuntza prozesuan erabilitako zenbait material gehigarriekin batera. Paul Urkijok *Irati* filmarekin lortutako arrakasta baino hiru hamarkada aurretik ondu zituen euskal mitologiaren “unibertso” horretarako sarbidea izan ziren binetak Juan Luis Landa ilustratzaile errenteriarrak.

1995. urtea zen. Landak bere hiru pasioak—Nafarroako antzinako historia, natura eta Pirinioak eta euskal legendariuma—uztartzearen ondorioz jaio zen *Irati* eta, jakina, baita izen bereko protagonistia ere, *Autzaren esnatzea*—jatorriz, *El despertar del Autza*—inburupean kaleratutako albumean. Gaztelaniaz eman zen argitara, jada desagertutako, Glenat etxearen hauspopetan; gerora bai, *Ipurbeltz* aldizkariaren orrialdeetan, atalka euskaraz argitaratu ziren Irati eta Eneko Aritza, Iruñeko lehen erregea izango zenaren hastapenetako narrazioak.

Ostera, beste bi liburuki argitaratu zituen Landak Glenatekin —*El medallón de Boldro* eta *La condena de Irati*, *El ciclo de Irati*—sagaren bigarren eta hirugarren kapituluak—, gidoian Joxean Muñoz donostiarraren laguntza izan zuelarik. Horrekin, kontakizunak norabide desberdina hartu zuen. Historiari hainbeste erreparatu ordez, fantasiaren errepidean gora egin zuen. *Saiak* deituriko azken atalari dagokionean, *Xabiroi*, *Ikastolen Elkarte* eta *Dani Fano* ilustratzailearen bultzadaren eskutik iritsi zen liburu dendetara 2007. urtean. Azken hau salbu—merkatuan baitago oraindik—, beste hirurak Ereinen euskarazko edizioan topa litezke. Gaztelaniazkoan, aldiz, lau atalak bildu dituzte liburuki integral batean.

Ereingo editore Uxue Razquinek, *Irati*ren gidoiari Joxean Muñozek eta Paul Urkijok zinemagileak edizio berriua aurkeztu zuten atzo Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Urkijoren film luze arrakastatsua eta sarituari oso eskeronero agertu zen Muñoz, jatorrizko komikiari bizitza berri bat eman izanagatik; Landak, bere aldetik,

ezin izan zuen prentsurrekoan parte hartu, baina bideo batean eskerrak luzatu dizkio zinemagile arabarrari.

Muñozek gogora ekarri nahi izan zuen, 2007an argitaratutako azken istorioan, argumentua itxi arren, atea irekita utzi zizkiotela, etorkizunean pertsonaia haien bizitzaren beste pasarte batzuk garatzeko aukera egon zedin. Ez zen horrela izan, ordea, sortzaileak ez baitira VIII. mendeko Euskal Herrira itzuli. Hori bai, *Irati*ren “espirituaren” hazia landatu dute belaualdi berri batean. Horrela

uste dute, bai ilustratzaileak, baita gidoiariak ere.

Urkijok Muñozen eta Landaren testigua hartu eta haiak sortutako unibertsoa bereganatu du. Beraz, komikiak ez du jarraipen narratiborik izan, dimentsio berri bat hartu duelako oraindik zinema aretoetan eta jada Amazon Prime plataforman ikusgai dagoen pelikulari esker.

Edizio berriak irakurle berriengan zer nolako erantzuna izango ote duen jakiteko irrikan daude egileak. “Oso pozgarria da *Irati* bizi-jarraitzen duela pentsatzea. Ez bakarrik guk sortu genuen hura, baizik eta hazia ere badela, beste batzuk horren inguruan beste gauza batzuk sor ditzaten. Ea horrek sortzeko eta irakurtzeko gogoia pizten dituen”, esan zuen Muñozek.

IRATI ETA ENEKO ARITZA Soberan da azpimarratzea, aski ezaguna delako, Paul Urkijok euskal mitologiaren, Koldo Mitxelenaen kontakiduen eta historiaren alde duen jite

bizia. Komikiak ere gustuko izan ditu txiki-txikitatik eta, horra hor, nola bat-batean, bere bi gairik gogokoak biltzen zituen komikia topatu zuen liburu-denda batean. “Erosi eta, behin irakurrita, maitemindu egin nintzen”, onartu du.

Errementari filmatu aurretik ere, bazuen Euskal Herriko legendak hizpide izango zituen “pelikula handi” bat egiteko asmoa; eta horretarako ezin topatu Landak eta Muñozek sortu eta garatutako Irati eta Eneko baino “ibilgailu” hoberik. Bi pertsonaien arteko erlazio erromantikoak sortzen zuen “dualismoa”—hau da, gizakiaren eta naturaren eta erlijioaren eta paganismoaren bitarteko dikotomia—lanabes oso “boteretsua” zen Urkijorentzat. Horixe boteretsua; pelikula festival garrantzitsuetan saritua izan da eta 150.000 ikusletik gora bildu ditu Estatuko zinema aretoetan, inoiz euskaraz egin den film luze arrakastatsuen bilakaturik. *Irati*ren kondaira, hazi eta hazi dabil. ●

“Pozgarria da ikusia nola beste batzuek ‘Irati’-ren inguruan proposamenak garatzen dituzten”

JOSEAN MUÑOZ
‘Irati’ komikiaren gidoiaria



Paul Urkijok, Uxue Razquinek eta Joxean Muñozek ‘Irati’ komikiaren edizio berria aurkeztu zuten atzo, Donostian.

‘IRATI’

- Egileak. Juan Luis Landa (ilustrazioak eta gidoia) y Joxean Muñoz (gidoia).
- Argitaletxea. Erein.
- Saila. Komikiak.
- Koadernaketa: Azal gogorra.
- Inprimaketa: Koloretan.
- Formatua: 240 x 320 mm.

EUSKARAZ

- Edukiak. *Autzaren esnatzea*, *Boldroen domina* eta *Irati*ren zigorra.
- Orrialde kopurua. 168.
- Salneurria. 33 euro.

GAZTELANIAZ

- Edukiak. *El despertar de Autza*; *El medallón de Boldro*; *La condena de Irati* eta *Saiak*.
- Orrialde kopurua. 216.
- Salneurria. 38 euro.